

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

## 3487

*IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita azalerak tratatzeko industriaren ingurumen-baimen integratua berrikusteko espedientea. Industria horrek disolbatzaile organikoak erabiltzen ditu eta egurraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa egiten du produktu kimikoak erabiliz.*

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraikitzeko, muntatzeko, ustiatzeko edo lekualdatzeko, bai eta funtsezko aldaketak egiteko ere.

Ingurumen-baimen bateratuaren xedea da atmosfera, ura eta lurzorua ez kutsatzeko edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura murriztu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzea, kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema integratuak ezarri; horrela, ingurumen osoa ahalik eta hoberen babestu ahal izango da.

Testu bategin horren 26. artikulua agintzen du ingurumen-baimen bateratuak ofizioz berrikusi behar direla instalazio baten jarduera nagusiari lotutako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratzen badira. 2020ko abenduaren 9an, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2020ko ekainaren 22ko betearazpen-erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira azalerak disolbatzaile organikoen bidez tratatzeko (egurraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa produktu kimikoak erabiliz egindakoa barne) erabilgarri dauden teknologia onenen gaineko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauarekin bat etorri.

Testu bategineko 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamenduak –zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita– (urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartu zuen) 16. eta 15. artikuluetan arautzen du berrikusteko prozedura; gutxienez hogei eguneko epea ezartzen du aldatu den hori jendaurrean erakusteko.

Adierazitako guztiagatik, eranskinean jasotzen den espedientea jendaurrean jarriko da hogei egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako alegazioak eta oharrak egin ditzaten. Espediente hori Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da, jendeak eskura izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 3a.

Zuzendaria ez dagoenez, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak ezarritakoa betez.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,  
AITOR ALDASORO ITURBE.

## ERANSKINA

Azalerak tratatzeko disolbatzaile organikoak erabiltzen dituzten industriak, egurraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa produktu kimikoak erabiliz egiten dutenak barne. Industria horien berrikuspen-espeditenteak jendaurrean jartzen dira

Espedientea	Ingurumen-baimen bateratuaren titularra	Herria/Udalerría
AAI00023	Cintas Adhesivas Ubis, S.A.	Hernani